

Carmen Bilbao, KOLDO MITXELENA KULTURUNEA: "Lankideen artean euskaraz egiten dugu gehienetan"

ABIZENAK bere jaioterriaren berri ematen du eta bere izenak lanbidea zehazten ez duen arren, liburutegien munduari lotua egon da 21 urtetan Carmen Bilbao bilbotarra. Carmen Koldo Mitxelena Kulturuneko liburuzain burua da duela 10 urte inguru. Ez du bere izendapenaren data zehatza gogoratzen, baina berdin zaio. Carmenen ustez, hori ez da batere garrantzitsua. Emakume honek beste era bateko gauzei errepara-tzen die. Euskararen erabilerari esaterako.

Bilbaok, lan egiten duen erakundeak bezala, apostu sendoa egiten du euskara sustatzeko. Arlo pertsonalean bere burua euskalduntzeari ekin dio euskaltegi batean eta, aldi berean, bere alabei hezkuntza euskaldun bat emateaz arduratu da. "Nik ez nuen hizkuntza hau ikasteko aukerarik izan gaztetan eta ez nuen nire alabei gauza bera gertatzerik nahi", adierazi zuen. Hori dela eta, gaztetatik bidali zituen haurrak euskal eskoletara eta, horretaz gain, euskal kultura irakatsi zien umetatik.

Lan munduari dagokionez, Carmenek, Koldo Mitxelena Kulturuneko lankide gehienek bezala, euskaraz ditu gehienetan lan harremanak. "Hemen lan egiteko ezinbestekoa da euskaraz min-tzatzen jakitea eta, horri esker, gehien erabiltzen den hizkuntza da euskara", kontatu zuen liburuzain buruak.

Hori dela eta, Carmenen ustetan, "erdialdeko liburutegi honetara ailegatzen denak badaki euskaraz hitz egin dezakeela, denek ulertuko diotelako".

LITERATURA. Euskarazko liburuak

Bilbaok esan zuenaren arabera, liburutegi askotan euskarazko liburuak txokoetan baztertzan dituzte, bigarren mailan egongo balira bezala, baina " Koldo Mitxelenan ez da hori egiten, presentzia handia duelako bertan literatura euskaldunak".

Urdaneta kaleko liburutegiko arduradunak argi dauka euskarazko eleberrien presentzia eskasa dela gaztelaniazkoekin alderatuta. "Erdaraz askoz ere obra gehiago argitaratzen dira eta horrek asko mugatzen du euskarazko literaturaren kopurua", esan zuen Carmenek.

Hala eta guztiz ere, Koldo Mitxelenan ahalegin handia egiten du ahalik eta liburu gehien eskaintzeko irakurleei euskaraz. "Gure betebeharra da hori eta gustura egiten dugu", amaitu zuen.